

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN, ERAKUNDE HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN SAILA

Gazteria Zerbitzua

Gazte Informatzaileen Sarea 2025-2026 programaren barruan diru-hornidurak esleitzeko deialdiaren oinarriak

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak, bertan aurreikusitakoaz gain, honako hauen arabera arautuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua), eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, zeinaren helburua baita Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozedura arautuko duten oinarri orokorrak ezartzea. Ordenantza horri 2023ko apirilaren 21ean eman zitzaion hasierako onespena, eta 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen.

1. Dirulaguntzen ildoak

Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zuen Vitoria-Gasteizko 2025-2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, 2025eko uztailaren 17an. Plan hori aldatu egin zen 2025eko otsailaren 21ean.

Deialdi hau plan horren 01_10 dirulaguntza-ildoari dagokio: “Gazteek hirian parte hartzea sustatzen duten ekimenak eta proiektuak bultzatzea. Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetako gazte informatzaileei laguntzea”, baldin eta ekimen zein proiektu horien helburu estrategikoa proiektu asoziatiboak eta elkarleen arteko proiektuak sustatzea da, batez ere gazteei zuzenduak, udal-politiketan gazteen partaidetza sustatzera bideratuta.

2. Deialdiaren xedea

Vitoria-Gasteizko ikastetxeetan —Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Batxilergoa eta Erdi Mailako nahiz Goi Mailako Lanbide Heziketa eskaintzen duten ikastetxeetan—, 2025-2026 ikasturtean, gazte informatzaileen sarea kudeatu eta dinamizatzeko diru-hornidurak emateko modua arautzen da deialdi honen bitartez.

Gazteei beren garapen pertsonalerako informazio esanguratsua eskuratzeko erraztasunak ematea da deialdi honen helburua, eta, funtsean, informazio hori bildu, antolatu eta gazteen artean zabaltzeko orduan berak protagonista izatea.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuak gazteen arloan jarduteko ardatz nagusiak ezarri ditu —kalitatea, partaidetza, hurbiltasuna eta zeharkakotasuna—. Gazte informatzaileen sarearen programak gazteen parte-hartzea ahalbidetzen du, baita erakundearen eta gazteriaren arteko hurbiltasuna ere.

3. Proiektuaren azalpena

Gazte informatzaileen sarea zer den: programa horren bitartez, koordinatu egiten da ikasleen parte-hartzea, beren eguneroko eta etorkizuneko jardunerako informazio garrantzitsua jaso, antolatu eta zabaltzeko dagokionez: hirian gazteentzat dauden zerbitzu eta baliabideak, prestakuntza, beka eta dirulaguntzak, lehiaketa eta deialdiak, enplegua, aisialdia eta abar.

Gazte informatzaileak Vitoria-Gasteizko irakaskuntza ertaineko ikastetxeetako 15 eta 25 urte bitarteko ikasleak dira. Ikastetxe bakoitzeko bi lagun izan daiteke zeregin horietan jarduteko kopururik egokiena.

Parte hartzeko modalitateak: informatzaileek bi lan-ildoren bidez egingo dute lan. Lehenengo ildoak komuna da (informazio-taularen kudeaketa); eta bigarren ildo gisa, ikastetxeak eta/edo parte hartzen duten gazteek ondoen iritzitakoa aukeratuko dute (sareen bidezko edo aurrez aurreko zabalpena).

1. Ikastetxean informazio-aula bat kudeatzea: programarako bakarrik den aula bat, Gazteria Zerbitzuak emana. Bertan, informatzaileek gazteentzat interesgarriak diren gaiak buruzko kartelak eta eskuorriak partekatuko dituzte. Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoak eguneratutako materialaren hautaketa bat (paperean) emango die bi astean behin. Horrez gain, beren ikastetxe, auzo edo intereseko bestelako iturrietatik bildutako informazioa jar dezakete.

2. Sareen bidez zabaltzea edo aurrez aurre zabaltzea.

2.1 Sareen bidez zabaltzea: sare sozialetarako bideo-edukia sortzea. Informatzaileak lankidetzan arituko dira Gazteria Zerbitzuarekin, gazteentzako jarduerari edo informazio interesgarriari buruzko material informatiboa sortzeko, bideo-formatuan. Hilean bi bideo sortzeko konpromisoa hartuko dute; bideo horien gaia eta iraupena adosteko programaren arduradunarekin koordinatuko dira, Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan. Gazteria Zerbitzuaren sare sozialetara (@vggaztea) igoko dira bideoak, eta informatzaileak protagonista bihurtuko dira, bai informazioa egitean, bai hedatzean, informazioa berdinkiderei iristea errazteko.

16 hornidura gordeko dira sareen bidezko hedapen-modalitate horretarako.

2.2 Aurrez aurreko hedapena: gazteek informazioa emango diete ikaskiderei, aisialdiko jarduerari, baliabideei eta gazteen interesekoak diren beste gai batzuei buruz. Konpromisoa hartuko dute hilean gutxienez bi arreta-saio emateko, ikastetxean bertan.

Aurrez aurreko arreta-saioetako gaiak eta egunak programaren arduradunarekin koordinatuko dira, gazteen argibideetarako udal bulegoan. Gazteek arreta-saioei buruzko datuak jasoko dituzte erregistro-orri batean.

6 hornidura gordeko dira aurrez aurreko hedapen-modalitate horretarako.

Ikastetxe bakoitzak aukeratuko du parte hartzeko modua, bigarren lan-ildoko bi aukeretako bat edo biak hautatuta. Biak hautatuz gero (sareen bidezko eta aurrez aurreko hedapena), eskabideen eta hautaketa-irizpideen arabera esleitu da parte hartzeko modalitateetako bat.

Parte hartzeko aukera bakoitzean (sareen bidezko eta aurrez aurreko hedapena) erreserbatutako hornidurak bete ezean, diru-hornidura horiek beste modalitateari gehitu ahal izango zaizkio. Hau da, aurrez aurreko hedapenerako erreserbatutako 6 horniduretatik 2 bakarrik esleitzen badira, gainerako 4 hornidurak sare sozialen bidezko hedapen-modalitateari gehitu ahal izango zaizkio.

Hautatzeko modua: ikastetxeak berak hautatuko ditu parte hartuko duten gazteak. Horretarako, ikastetxeak egokitzen dituen irizpideak ezarri ditzake, betiere kontuan hartuta informatzaileek telefono mugikorra izan behar dutela eta sare sozialak erabiltzen esperientzia izan behar dutela.

Proposatutako ikasleek idatziz erantzun beharko diete IV. eranskineko galderei, eta aurkezen-bideo bat grabatu beharko dute banaka. Bideo horretan adieraziko dute haien izena, zer ikasten ari diren, elkarte edo talderen batean parte hartzen duten, zer zaletasun dituzten eta zer motibazio duten programan parte hartzeko.

Oinarri hauen hamaikagarren puntuan adierazten den baremoa baliatuz baloratuko ditu Gazteria Zerbitzuak egiten diren proposamenak, eta ikastetxeak eta parte-hartzaileak aukeratuko.

Informatzaile gazteek konpentsazio ekonomikoa jasoko dute egiten duten lanagatik. Konpentsazio hori ikastetxearen bidez helaraziko zaie, alegia, ez dute inolako lan- edo merkataritza-harremanik izango Udalarekin.

2025eko urritik 2026ko maiatzera artekoa izango da programaren funtzionamendu-aldia.

Diru-hornidurak: deialdi honen bitartez, gehienez 22 diru-hornidura esleitu dira. Ikasleentzako kontraprestazio gisa, ikastetxe bakoitzak 500,00 euroko hornidura jasoko du, informazio-aula dinamizatzeagatik eta Gazteria Zerbitzuaren sare sozialetarako hilean 2 bideo laboratzeagatik, ala, bestela, ikastetxean bertan hilean aurrez aurreko 2 arreta-saio emateagatik.

Zenbatekoa bi epetan sartuko da ikastetxearen banku-kontuan; ikastetxearen ardura izango da ikasleei ordaintzea. Lehenengo ordainketa zenbateko osoaren ehuneko 40 izango da, eta bigarrena, gainerako ehuneko 60.

Gazteria Zerbitzuak ordainketak izapidetu ahal izateko, ikastetxeak egiaztagiri bat bidali behar du abenduaren hasieran eta maiatzaren hasieran, informatzaileek ikastetxean informazioa dinamizatzeko lana egin dutela egiaztatzeko.

Ikastetxeak ezingo du inolaz ere atxiki diru-hornidura Gazte informatzaileen sarearen programarenak ez diren arrazoiengatik.

4. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honen haritik ematen diren laguntzak Gazteria Zerbitzuaren 2025eko aurrekontuko 2025/01.16.2371.48936 partidako 11.000,00 euroko aurrekontu-kreditutik ordainduko dira.

5. Ikastetxearen zereginak, gazte informatzaileen sarea dela eta

Hauxe eskatzen zaie programan parte hartu nahi duten ikastetxeei:

a. Gazte informatzaileen sarearen programari zabalkundea ematea ikasleen artean, eta parte hartuko duten ikasleak hautatzea.

b. Erreferentziazko pertsona bat hautatzea ikastetxean —bai gazte informatzaileentzat, bai Gazteria Zerbitzuarentzat—.

c. Proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozesuan Gazteria Zerbitzuari laguntzea.

d. Ikastetxeko arduradun izendatutako pertsonak programaren jarraipen-bilera batean parte hartuko du, ikasle informatzaileekin eta gazteria-teknikariarekin batera, otsailetik martxora bitartean.

e. Ongi ikusteko moduko leku bat uztea, ikastetxean, informazio-aula jartzeko, gazte informatzaileek eta ez bestek erabiltzeko.

f. Programaren zabalkundea erraztea, bai modu presentzialean, ikastetxean, bai ikastetxearen sare sozialen, webgunearen edo argitalpenen bitartez.

g. Informazio-aula kudeatzeko lanak errazte aldera, ikastetxeko zenbait baliabide erabiltzen uztea: bulegoko materiala, fotokopiagailua, ordenagailua, etab.

h. Horretarako jasotako diru-hornidura ikastetxeko gazte-informatzaileei helaraztea, eta ordainketa horiek behar bezala justifikatzea.

i. Proiektuaren jarraitutasuna bermatzea, ezarritako aldi osoan, behar izanez gero gazte informatzaile berriak izendatuz, baldin eta lehendik zeudenek ikastetxea uzten badute edo hurrengo puntuan adierazten diren zereginak betetzen ez badituzte, edo bestelako pisuzko arazoiren bat egokitzen bada.

6. Gazte informatzaileen zereginak

Beren proposamena hautatua egokitzen delarik, zeregin hauek hartu beharko dituzte beren gain ikasleek:

a. 15 egunean behin, programak ezarritako egunetan, Gazteen Argibideetarako Udal Bulegora joatea (Espainia Plaza, 1), bertan prestatutako informazioa jasotzera, eta ikastetxeko ikaskideentzat interesgarritzat jotzen duten beste edozein informazio bildu eta prestatzea.

b. Ikastetxeko informazio-panela kudeatzea, behar bezala ordenatuta eta eguneratuta mantenduta, Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan jasotako informazioa eta beste bitarteko batzuetatik lortutakoa ipinita, eta gaien arabera antolaketa-eskema bat baliatuta.

c. Programa zabaltzea (ikasgeletatik, delegatuen bitartez, etab.): informatzaile gisa beren burua aurkeztea, informazio-panela dagoela gogoraraztea eta Gazteria Zerbitzuaren sare sozialak zabaltzea.

d. Ikaskideak zuzenean informatzea, helarazten dizkieten zalantzak argituz edo bitartekari-lanak eginez, zalantza horiek argitu ahal izateko.

e. Hilean bitan, gazteentzako intereseko ekitaldiei, jardueri edo informazio orokorrari buruzko edukia sortzea, bideo formatuan, parte hartzeko modalitate hori hautatuz gero. Bideoen edukia eta iraupena programaren arduradunarekin adostu eta koordinatuko dira, gazteen argibideetarako udal bulegoan. Bideoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, grabazio berean bereizita zein konbinatuta. Bideoen erdietan, gutxienez, ikastetxeko bi informatzaileetako bat agertu beharko da.

f. Hilabetero aurrez aurreko bi arreta-saio kudeatzea, parte hartzeko modalitate hori hautatuz gero. Edukiak eta hedapenerako gaiak programaren arduradunarekin adostu eta koordinatuko dira, gazteen argibideetarako udal bulegoan.

g. Prestakuntza-saio bat jasotzea programaren funtzionamenduari buruz, baita sare sozialen bidezko eta aurrez aurreko hedapen-estrategietarako bideo-edukia sortzeari buruz ere. Derrigorrezko prestakuntza hori 2025eko urrian izango da.

h. Gazteen argibideetarako udal bulegoak deitzen dituen koordinazio- eta jarraipen-bilertara joatea.

i. Programaren jarraipen- eta ebaluazio-datuak biltzeko elkarlanean jardun eta egindako lanari buruzko azken galdetegi bat betetzea. Galdetegi hori betetzea ezinbesteko betekizuna izango da diru-horniduraren bigarren epea kobratzeko.

7. Gazteria Zerbitzuaren zereginak

Konpromiso hauek hartuko ditu bere gain Gazteria Zerbitzuak:

a. Proiektuaren arduradun bat izendatzea, ikastetxe eta informatzaileekiko harremanetarako.

b. Ikastetxe bakoitza informazio-aula batez hornitzea, beharrezkoa bada.

c. Gazte informatzaileei panela —edo panelak, bi badaude— eguneratzeko beharrezko material informatiboa ematea bi asteen behin, gutxi gorabehera.

d. Informatzaileei hasierako prestakuntza ematea programaren funtzionamenduari buruz eta informazioa hautatu eta antolatzearen eta sare sozialetarako bideoak sortzearen inguruan.

e. Gazte informatzaileei informazio-aulak kudeatzeko aholkuak ematea —banakako jarraipena egingo du, whatsapp bidez—.

f. Informatzaile gazteei aholku ematea bideo-edukiak sortzeko gaien eta iraupenaren inguruan —parte hartzeko modalitate hori hautatuz gero—, baita alderdi teknikoetan laguntzea ere, ahalik eta bertsio onena lor dezaten sare sozialetara igo aurretik.

g. Gazte informatzaileei aholku ematea aurrez aurreko arreta-saioetan zabaldu beharreko gaiei buruz —parte hartzeko modalitate hori hautatuz gero—, informazioa ahalik eta erakargarriena eta hurbilena izan dadin.

h. Informatzaileek sortutako bideoak, behar adinako kalitatea dutenak, Gazteria Zerbitzuaren sare sozialetara igotzea.

i. e) Behar diren bilerak egitea, eta, kasuan-kasuan, programaren funtzionamendu onerako egokien diren kontrol- eta ikuskapen-sistemak ezartzea.

j. Proiektuari buruzko datuak bildu eta ebaluatzeko tresnak eskaintzea.

k. Baliabideak ematea bideoen kalitate teknikoa hobetzeko: mikrofonoak, kargagailuak, etab.

l. Ikastetxeei esleitutako diru-hornidurak ordaintzea, deialdi honetan adierazten diren epeetan eta moduan.

m. Programa hau dela eta gazte informatzaileek sortzen dituzten proposamen, ekintza eta berriei laguntza ematea.

8. Parte hartzeko eskabidea

1. Gazte informatzaileen sarean parte hartu nahi duten Vitoria-Gasteizko udalerriko ikastetxeek —Bigarren Hezkuntza, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Batxilergoa eta Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketa—, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a. 5. atalean adierazitako konpromisoak beren gain hartzeko prest agertzea.

b. Eskabide hauek betetzea: Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntza eta laguntza ekonomikoaren eskabidea (I. eranskina) eta ikastetxe gisa parte hartzeko eskabidea (II. eranskina).

c. Ikasleen dokumentazio hau jasotzea: informatzaile gisa parte hartzeko eskabidea (III. eranskina), galderei idatziz emandako erantzunak (IV. eranskina) eta irudiak eta bideoak erabiltzeko baimena (V. eranskina).

d. Dokumentazioa aurkeztea deialdi honen hamargarren puntuan azaldutako epeetan eta moduan.

2. Deialdi honetan parte hartu nahi duten ikasleek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a. 6. atalean zehaztu diren informatzaile-zereginak beren gain hartzea.

b. Proiektua zein ikastetxetarako den, bertan matrikulatuta egotea. Baldin eta ikasturtean zehar praktikarik egin behar bada ikastetxetik kanpo, ikasleak egiteko konpromisoa hartua duen zereginak egingo dituela bermatu beharko da. Ikasturteko edozein unetan ikastetxean baja emanez gero, gazte informatzaile izateari utziko utziko dio dena delako ikasleak, eta orobat galduko du artean jaso gabeko diru-hornidura.

c. Ezarritako adin-tartearen barruan egotea (15-25 urte) ikasturte horretan. Gainera, DBHko 4. maila, Batxilergoa edo Lanbide Heziketako zikloren bate egiten aritu beharko da.

d. Informatzaile-lana egiteko nahikoa prestazio dituen telefono mugikor bat izatea, eta sare sozialen erabileran erdi-mailako edo goi-mailako esperientzia izatea.

e. Ikastetxeko arduradunari dokumentazio hau ematea:

— Informatzaile gisa parte hartzeko eskabidea (III. eranskina).

— IV. eranskineko galderei idatziz emandako erantzunak.

— Programan parte hartzeko eta sare sozialetan irudiak erabiltzeko baimena (V. eranskina).

f. Informatzaile bakoitzaren aurkezpen-bideoa grabatzea eta IV. eranskinean adierazten den moduan bidaltzea.

g. Gehienez ere bi ikasturtez parte hartu ahal izango du ikasle bakoitzak programan, matriculatuta dagoen ikastetxea edozein delarik ere.

Gazteen argibideetarako udal bulegoak aholkularitza eskainiko die programaren inguruko edozein zalantza argitu nahi duten ikastetxeei eta ikasleei, eta eskatzen diren eranskinak betezen lagunduko, bai telefonoz (945 161330), bai whatsapp bidez (626 744936), bai posta elektronikoz (infojuven2@vitoria-gasteiz.org).

9. Parte hartzeko debekua

Honako pertsona edo entitate hauek ezin izango dute dirulaguntzarik eskatu:

- Berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko eta/edo generoagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-bidean zehapen irmoa jaso dutenak.
- Xedeak edo helburuak, onarpen- edo sarbide- funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolaketa edo estatutuak genero-berdintasunaren printzipioaren aurkakoak direnak.
- Gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak bete ez dituztenak.
- Sexuagatik eta/edo generoagatik diskriminatzen duten jarduerak sustatzen dutenak.

10. Iragarkia eta aurkezteko epea

1. Informazioa eta dokumentazioa.

ALHAOn, udalaren webgunean (v-g.eus/omij) eta Instagrameko [@vggaztea](https://www.instagram.com/vggaztea) kontuan argitaratuko da deialdia, eta gazteen argibideetarako udal bulegoan, Espainia plazan, eskatu ahal izango da oinarrien kopia.

2. Tramitazioa.

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahaliko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan, helbide honetan: <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>. Orobat aurkeztu ahaliko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Proposamenak aurkezteko epea: 2025eko urriaren 2ko 23:59ak arte.

Eskabide bakoitzarekin batera aurkeztu beharko dira oinarri hauetan eskatzen diren agiriak:

- I. Eranskina: Vitoria-Gasteizko Udaleri dirulaguntza eta laguntza ekonomikoa eskatzeko orria.
- II. Eranskina: Ikasleek “gazte informatzaileen sarea” programan parte hartzeko eskabidea.
- III. Eranskina: ikasleen eskabidea, informatzaile gazteen sarearen informatzaile izateko.
- IV. Eranskina: informatzaile gazte izateko hautagaien proposamena.
- V. Eranskina: “Gazte Informatzaileen Sarea” programan parte hartzeko eta sare sozialetan irudia erabiltzeko baimena.

Dirulaguntza-eskabidea ez badago behar bezala formalizatuta edo daturen bat falta badu, edo eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, akatsa konpontzeko eskatuko zaio ikastetxe eskatzaileari, eta orobat ohartaraziko hala egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela besterik gabe.

Hala eskatu eta 10 egun balioduneko gehieneko epe luzaezinean ikastetxeek dokumentazioa aurkezten ez badute, edo akatsak zuzentzen ez badituzte, eskabidea bertan behera utzi dutela ulertuko da.

11. Emateko prozedura eta balorazio-irizpideak

Norgehiagoka baliatuko da dirulaguntzak emateko prozedura gisa: alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak, hartara haien artean lehentasun-hurrenkera ezartzeko, jarraian adierazitako balioespen-irizpideei jarraiki. Baloraziorik onena lortzen dutenei emango zaie dirulaguntza, harik eta deialdiko aurrekontu-kreditua agortu arte.

Gazte informatzaile izateko hautagaiek idatziz erantzun beharko diete IV. eranskinean jasotako galderei, eta eranskin berean azaltzen den aurkezpen-bideoa grabatu beharko dute.

Gazteria Zerbitzuak proposamenen balorazioa egingo du, irizpide hauen arabera:

IDATZIZKO ERANTZUNEN BALORAZIOA	
Gazte informazioari buruzko hausnarketa	10 puntu gehienez
Informatzaile jarduteko plana	20 puntu gehienez
Gazteriararen sare sozialei buruzko hausnarketa	10 puntu gehienez
Neskek, mutilek edo beste genero batzuetako pertsonen sare sozialak nola erabiltzen dituzten hausnartzea	2 puntu gehienez
Bideo edo kartel batean bidaliko zenituzkeen slogana eta mezuak, gai hauetako baten inguruan: a) Martxoak 8, emakumeen nazioarteko eguna b) Maiatzak 17, LGTBfobiaren aurkako nazioarteko eguna c) Martxoak 21, arraza-bereizkeria ezabaketaren nazioarteko eguna	4 puntu gehienez
HAUTAGAI BAKOITZAREN BIDEO-AURKEZPENAREN BALORAZIOA	
Bideoaren kalitate teknikoa	10 puntu gehienez
Edukiaren kalitatea (ordena, egitura)	10 puntu gehienez
Adierazkortasuna, naturaltasuna, hurbiltasuna	10 puntu gehienez
Hizkuntzaren erabilera ez-sexista aurkezpen-bideoan	2 puntu gehienez
INFORMATZAILEEN MEREZIMENDUAK*	
"Gazteen elkarte edo kolektibo bateko kide izatea (egiaztagiriarekin)"	2 puntu gehienez
Aisialdiarekin, animazioarekin edo gazte-informazioarekin lotutako ikastaroak egin izana (egiaztagiriarekin)	2 puntu gehienez
Ordezkaritza-organoetako kide izatea (eskola-kontseilua, lan-batzordeak) (egiaztagiriarekin)	2 puntu gehienez
Guztira	84 Puntu

Diru-hornidura baino eskabide gehiago badago, arestian adierazitako irizpideen arabera aukeratuko dira 22 ikastetxeak, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta. Gainerako eskabideak itxarote-zerrendan geratuko dira (lortutako puntuen arabera ordenatuta), aurrekontu-hornidurarik bada edo ikastetxeren batek uko egin ez gero erabiltzeko.

12. Eskabideak balioetsi, bideratu eta ebazteko eskumena duten organoak

Gazteria Zerbitzuko hiru teknikariek osatuko dute eskabideak balioetsi eta dirulaguntzak nori eman proposatzeko eskumena duen organo kolegiatua. Oskar Fernández Jaras, Estibaliz Sanz eta Mabel Rodríguez. Gazteria Zerbitzua izango da organo instrukzio-egilea, eta ofizioz egingo ditu ebazpen-proposamena egiteko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro. Organo horrek dirulaguntzak emateko proposamena aurkeztuko dio ebazteko eskumena duen organoari. Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkariak izango du dirulaguntzak ematea ebazteko eskumena, Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko maiatzaren 16ko eskumenak eskuordetzeari buruzko erabakiarekin bat etorritik.

13. Ebazpenaren berri ematea eta ordaintzeko modua

Diru-horniduren ebazpenari buruzko jakinarazpena idatziz helaraziko zaio ikastetxeari, gehienez 10 eguneko epean, zinegotzi ordezkariak erabakia hartzen duen egunetik kontatuta.

Esleipendun suertatzen diren ikastetxeen kontu korronteetan ordainduko dira diru-hornidurak, bi epetan. Lehenengoa, ehuneko 40koa, ikasturteko lehen lauhilekoaren amaieran ordainduko da, eta, bigarrena, ehuneko 60koa, 2026ko maiatzetik aurrera.

Diru-hornidurak jasotzekotan, ikastetxeek ordainduta eduki beharko dituzte Vitoria-Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak —ofizioz egiaztatuko du hori Gazteria Zerbitzuak, baldin eta Gasteizko Udalari dirulaguntza eta laguntza ekonomikoa eskatzeko eskabidean, l. Eranskina, horretarako baimena eman bada—.

Baimenik ematen ez bada, zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzako Diruzaintzarekikoak beteta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira 2025eko irailean.

Bigarren ordainketa jasotzeko, gazte informatzaileek ebaluazio-inprimakia bete beharko dute horretarako adieraziko den eguna baino lehen, zeinak Gazteria Zerbitzuaren eta ikastetxearen oniritzia beharko baitu.

Informatzaile gazteek beren zereginak modu egokian bete ez badituzte, bertan behera utziko da diru-horniduraren ordainketa, ikastetxeari eta interesdunei behar bezala jakinarazi ondoren. Ordainketa egina balego, ikastetxeak diru hornidura itzuliko lioke Udalari.

14. Diru-hornidura justifikatzea

Deialdi honen bidez gazte informatzaileen sarea dinamizatzeko diru-hornidura jasotzen duen ikastetxeak dokumentu sinatu bat bidali beharko du, zeina Gazteria Zerbitzuak helaraziko baitio, egiaztatzeko informatzaileek ikastetxeko informazio-panela behar bezala eguneratu dutela. Dokumentu hori 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen bidaliko da lehen ordainketarako, eta 2026ko ekainaren 30a baino lehen, bigarrenerako.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko ekainaren 20an

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkaria
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Udalari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria

Solicitud de Subvención y Ayuda Económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

ESKATZAILEAREN DATUAK - DATOS DEL/LA SOLICITANTE (IKASTETXEA / CENTRO EDUCATIVO)

Izen-abizenak / Enpresaren izena - Nombre y apellidos / Razón social NAN/IFZ/AIZ – IFZ/NIF/NIE

ADMINISTRATIOAREN AURREKO ORDEZKARIAREN DATUAK - DATOS DEL REPRESENTANTE ANTE LA ADMINISTRACIÓN

Lehen deitura - Primer apellido Bigarren deitura - Segundo apellido Izena / Enpresaren izena – Nombre / Razón Social

NAN/AIZ – DNI/ NIE Posta elektronikoa - Correo electrónico

Helbidea (kalea, ataria, eskailera, solairua eta atea) - Dirección (calle, nº, escalera, piso y letra)

PK - C.P. Herria - Localidad Lurraldea - Provincia Tel. - Tfno.

ESKATZAILEAREN BANKETXEKO DATUAK - DATOS BANCARIOS DEL/LA SOLICITANTE (IKASTETXEA / CENTRO EDUCATIVO)

Finantza-erakundea IBAN F. E. kodea Bulegoa K.Z. Kontu-zenbakia
Entidad financiera Entidad financiera Código E.F. Sucursal D.C. Número de cuenta

LAGUNTZA EKONOMIKO EDO DIRU-LAGUNTZA ESKATZEN DU ARLO HONETAN :

Gazteria	☒	Kirola	☐
Berdintasuna	☐	Gizarte Politikak	☐
Garapenean Laguntzea	☐	Herritarren Partaidetza	☐
Euskara	☐	Merkataritza - Ostalaritza	☐
Bizikidetzatza eta aniztasuna	☐	Enpresak	☐
Kultura	☐	Enplegua - Kontratazioa	☐
Hezkuntza	☐	Nekazaritza Eremua	☐

SOLICITA AYUDA ECONÓMICA, SUBVENCIÓN DE:

Juventud	☒	Deporte	☐
Igualdad	☐	Políticas Sociales	☐
Cooperación al desarrollo	☐	Participación Ciudadana	☐
Euskera	☐	Comercio - Hostelería	☐
Convivencia y Diversidad	☐	Empresas	☐
Cultura	☐	Empleo - Contratación	☐
Educación	☐	Zona Rural	☐

DIRU-LAGUNTZEN ILDO HONEN BARRUAN - CORRESPONDIENTEA LA LINEA DE SUBVENCIÓN DE:

IRAKASKUNTZA ERTAINETAKO GAZTE INFORMATZAILEEI LAGUNTZEA/
APOYO A JÓVENES INFORMADORES/AS EN CENTROS EDUCATIVOS DE ENSEÑANZAS MEDIAS

ESKATUTAKO DIRU KOPURUA – IMPORTE SOLICITADO

500€



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Udalarir diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria

Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

BERE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DU:

Ezagutzen eta onartzen dituela laguntza ekonomikoak eta diru-laguntzak emateko udal programaren barruan aurkeztu nahi duen deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideak, eta bete egingo dituela.

Ordaindu beharreko zergak ordainduta dituela, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintzan ere, eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren 13.2. artikulutik eratorritako gainerako inguruabarrak betetzen dituela.

GASTEIZKO UDALARI BAIMENA EMATEN DIO

Konkurrentziatik eratorritako komunikazio ofizialak posta elektronikoz jasotzeko, Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluen arabera.
Adierazi hemen ☐

Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak ordainduak direla egiaztatzen duen ziurtagiria ofizioz eskatzeko.
Adierazi hemen ☐

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiriak ofizioz eskatzeko.
Adierazi hemen ☐

Baimen horiek **UKATUZ** gero, zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzako Diruzaintzarekikoak beteak dituzuela egiaztatzen duen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzu eskaera honekin batera.
Adierazi hemen ☐

DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:

Conocer, aceptar y cumplir los criterios fijados en las bases de la convocatoria a la que se presenta dentro del Programa Municipal de Ayudas Económicas y Subvenciones.

Estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social y demás circunstancias derivadas del artículo 13.2 de la Ley general de Subvenciones.

AUTORIZA AL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ

Recibir las comunicaciones oficiales por correo electrónico, derivadas de su concurrencia, conforme a la Ley PAC 39/2015, artículos 40 y 41.
Marque aquí ☐

Solicitar de oficio el certificado de estar al corriente de pago en las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral.
Marque aquí ☐

Solicitar de oficio los certificados de estar al corriente de pago con la Tesorería de la Seguridad Social.

Marque aquí ☐

En caso de **DENEGAR** estas autorizaciones, deberá presentar los certificados acreditativos de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social junto con esta Solicitud.
Marque aquí ☐

Sinadura / Firma:

Eskabidea sinatu aurretik, datu babesari buruzko informazioa ikusi hurrengo orrian.

Antes de firmar la solicitud, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la siguiente página.



Gasteizko Udalari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria

Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrira <i>Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/2015</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oianarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	<i>Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOko 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira</i> <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: El interesado dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos</i>
Hartzaileak <i>Destinatarios</i>	<i>Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei</i> <i>Los datos personales no serán cedidos a terceros</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	<i>Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen errekamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutako aplikatuko zaie datuei</i> <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	<i>Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu</i> <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos</i>

www.vitoria-gasteiz.org**II. eranskina: "Gazte informatzaileen sarea" programan parte hartzeko eskabidea**
Anexo II: Solicitud de participación en el programa "Red de Jóvenes Informadores/as"**Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saila**
Departamento de Alcaldía, Relaciones Institucionales e Igualdad**Gazteria Zerbitzua**
Servicio de JuventudTel.: 945 161522 / 945 161693
informacion@vitoria-gasteiz.org**ESKATZAILEAREN DATUAK – DATOS DEL/LA SOLICITANTE (IKASTETXEA / CENTRO EDUCATIVO)**

1. abizena <i>Apellido 1</i>	2. abizena <i>Apellido 2</i>	NAN/AIZ/IFZ <i>DNI/NIE/CIF</i>
Izena / Enpresaren izena <i>Nombre / Razón social</i>		

Ordezkatzen dudak ikastetxea – en calidad de representante del Centro:

--

Kargua – y con cargo en el mismo de:

--

Deialdian parte hartuz gero ikastetxeak bere gain hartu beharreko zereginen eta bete beharreko baldintzen berri badudala aitortzen dut. Programak irauten duen bitartean proiektuaren jarraipena bermatzeko eta diru hornidura, adierazten den epean eta moduan, informatzaileei ordaintzeko ardura hartzen dut

Me declaro enterado/a y conforme con las funciones y requisitos que esta convocatoria establece para los centros educativos.

Me comprometo a velar por la continuidad del programa durante el período de tiempo establecido para su desarrollo y a realizar el pago de las dotaciones a los/as informadores/as en los plazos establecidos.

ESKATZEN DUT: – SOLICITO:

Honekin batera doan Gazte Informatzaileen Sarea dinamizatzeko proposamena ikastetxerako prestatua, aintzat har dadila deialdiko diru hornidurak esleitzeko orduan.

Que se considere la propuesta de dinamización de la Red de Jóvenes Informadores/as que se adjunta para optar a la dotación económica de la convocatoria en el centro de enseñanza.

IKASTETXEAREN DATUAK – DATOS DEL CENTRO EDUCATIVO

Ikastetxearen izena <i>Nombre del centro</i>	
Kalea/Proiektuaren arduradunaren izen-deiturak – Nombre y apellidos del/de la responsable del proyecto en el centro:	
Proiektuaren arduradunaren posta elektronikoa eta telefonoa – E-mail y teléfono de contacto del/de la responsable del proyecto en el centro:	
Proposatutako ikasle informatzaileen izen-deiturak – Nombre y apellidos de los y las alumnas informadoras propuestas	
Ikastetxeak zein modalitatetan parte hartu nahi duen – Modalidad en la que desea participar el centro	
☐ Sare sozialen Zabalkunde – Difusión redes sociales	
☐ Zabalkunde presentziala – Difusión presencial	

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (*)

Gasteizen, (e)ko (a)ren (e)an En Vitoria-Gasteiz, a de

Ikastetxearen izenpea eta zigilua – Firma y sello de la entidad solicitante

(*)

Inprimakia sinatu aurretik, hurrengo orrialdean agertzen den datuen babesari buruzko informazioa irakurri beharko duzu.

Antes de firmar el formulario, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la página siguiente.

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 27/5/2025


www.vitoria-gasteiz.org

II. eranskina: "Gazte informatzaileen sarea" programan parte hartzeko eskabidea

Anexo II: Solicitud de participación en el programa "Red de Jóvenes Informadores/as"

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saila
Departamento de Alcaldía, Relaciones Institucionales e Igualdad

Gazteria Zerbitzua
Servicio de Juventud

Tel.: 945 161522 / 945 161693
informacion@vitoria-gasteiz.org

